

M A N E Z A Z E R I

JOANES - Kaieten eta Kattalinen aita
LEON - Piarresen eta Gaxuxaren aita
KAIET - Joanesen semea, Gaxuxaren senarra
PIARRES - Leonen semea, Kattalinen gizongaia
GAXUXA - Kaieten emaztea
KATTALIN - Ustez espanola, Joanesen alaba
MANEZ - Piarresen mutil maltzurra
JOSEP - Kaieten mulila
KOXEPA - Gaxuxaren amanoa
PEIO - Berriketari bat, Manezen adixkidea.

TOKIA - Sukalde bat, suia erdian. Bi ate : bat ezkerreko aldean, bestea eskuinekoan. Mahain bat : haren sahetsean, Josep zapeta zirutzen ari da. Huna nun heldu den Kaiet kexu-kexua.

LEHEN AGER-ALDIA

KAIET - JOSEP

KAIET - A gaixo ni ! Amodiotan sartu orduko beldurka ibili behar naizela !
 (Jartzen da mahainean) Zer entzun duk, Josep, aita berriz heldu
 zaukula etxerat ?

JOSEP - (Gelditurik) Bai, hori bera !

KAIET - Goiz huntan berean etxean izanen dela ?

JOSEP - (Geldituz) Goiz huntan berean !

KAIET - Eta heldu dela ene ezkontarazteko xedearekin ?

JOSEP - Bai omen !

KAIET - Leonen alabarekin ?

JOSEP - Preseski !

KAIET - Eta neska hortako heldu duk beraz Marokatik !

JOSEP - Xuxen zabilta !

KAIET - Eta ene osebaren ganik dituk berri horiek ?

JOSEP - Zure osebaren ganik !

KAIET - Eta huni aitak jakinaraziak letraz ?

JOSEP - Letraz !

KAIET - Oseba horrek bazazkik beraz gure harat-hunat guziak ?

JOSEP - Harat-hunat guziak !

KAIET - Alo Josep, mintza hadi ! Ele bakotxa behar zaik tirabuxunarekin
 aterazi !

JOSEP - Zer erranen dut ? Denak xuxen hartu dituzu diren bezal-bezala !

KAIET - Kontseila nezak bederen, eta erradak zer egin kinka huntan !

JOSEP - Egia erran, salbu zu eta, zu bezain asto naiz eta banuke ni k
 ere kontseilu zerbaiten beharra !

KAIET - Aitaren itzultze horrek xifritzen nik !

JOSEP - Eta ni ez gutiago !

KAIET - Aitak jakiten dituelarik hemen gertatu direnak, zer ortziak
 eta zer ximixtak ! A gaixo ni ! Zer erauntsiak burutik beheiti !

JOSEP - Erasiak deus ez dira ! Erasiakin kitto banintz ni ere ! Jadanik
 senditzen ditut bizkarraren gainean ukan beharditudan makil
 ukaldiak !



KAIET - Jainko maitea ! Bainan zer egin ?
JOSEP - Gogoeta horiek egin bazinitu aintzinetik ?
KAIET - Sarzkik hire predikuak sakelan !
JOSEP - Hilaraziko nuzu zure haurkeriekin !
KAIET - Bainan zer egin ? Zer egin ?...

II. MANEZ - KAIET - JOSEP

- MANEZ - Heup Josep !
 JOSEP - (Xutiturik, atea idekitzen) Aintzina, aintzina Manez !
 MANEZ - (Kaieti beha) Bainan zer duzu ? Norbait hila ? Zuri-zuria zira !...
 KAIET - A gaixo Manez ! Bahaki ! Fini nuk ! Akabo ! Gizonetan malurosena nuk !
- MANEZ - Nolaz hori ?
 KAIET - Ez duka deus ere jakin ?
 MANEZ - Nik ez !
 KAIET - Ene aita etxerat heldu duk Leonekin eta ezkontarazi nahi nik !
 MANEZ - Ezkontza ez da ez urka bilurra !
 KAIET - Ez baitakik hik ene arranguren berrí !...
 MANEZ - Zuk erran orduko jakinen dut !... Bertzenaz ere gaitza naiz ni bertzen konsolatzeko : dena bihotza amorant gazten laguntzeko !...
 KAIET - A Manez ! Zerbait hatzeman baheza ateka gaixto huntarik ene ateratzeko !
- MANEZ - Egia erran, zer da nik egin ez dezaketarik ? Nahi izaita aski ! Diote maltzurra naizela, bainan nik diot azeri zahar bat naizela eta ez bertzerik !
- KAIET - Badakik, Manez, nola duela ilabete pare bat, aita eta Leon Amerikarat juan ziren beren intresen ikusterat...
 MANEZ - Badakit bai !...
 KAIET - Piarres eta ni utzi gintuzteian etxean, Piarres hire gomendio eta ni Josepen...
 MANEZ - Ba eta nik untsaxko bete dutala ene kargua !...
 KAIET - Handik laster Piarresek Españolika bat errekontratu zian eta hartaz agradatu...
 MANEZ - Piarresek ez daut eni deus gordetzen !
 KAIET - Adixkide baigituk Piarres eta ni, bere amoranta ezagutarazi zautaian. Beti hartaz mintzo zian ; hura zela munduko nexkato ederrena, izpiritu argituena eta nik dakita zer oraino !...
 MANEZ - Emazteak itsutzen omen du bildu nahi duen gizona !
 KAIET - Egun batez lagundu nian izar hura begiratzen zuten etxerat. Han urbil entzun nitian nigar auhengarri batzu. Emazte batek erran zaukuan orduan, ez baginituen harrizko bihotzak, hunkituak behar ginuela izan hango gertakariez !...
 MANEZ - Bainan norat ari zira gizona ?
 KAIET - Juan ginitian beraz eta han kausitu emazte xahar bat hiltzen ari, eta haren ondoan nigarrez hurtua nexkato gazte bat, izaiten ahal den ederrena eta maitagarriena...
 MANEZ - A ! Bon ! Bon !
 KAIET - Bertze batek itsusia iduriko zian estatu hartan : zaia txar tarratatu bat zian soinean : ileak denak nahasiak. Bainan halere distiratzen zian mila argiren jabe izan balitz bezala !...
 MANEZ - Ikusten dut ba orai norat ari ziren !...
 KAIET - Ikusi bahu Manez ! Xoragarria kausituko huen !
 MANEZ - Ez da dudarik ! Ikusi gabe ere ikusten dut xarmagarria dela.
 KAIET - Haren nigarrak ez zitian gero bertze presunen nigarrak bezalakoak ! Izar ihintzaren pare argitzen zuten, zeruko distira eder eta gozo batez.
 MANEZ - Ba zen ba segur itsutzekoa !
 KAIET - Amodiorekin besarkatzen zian hiltzen ari zitzaion ama, eta bihotza erdiratua nian bihozmin hura ikusiz !
 MANEZ - Zinez hunkigarri zen : eta segur naiz bereala maitatu duzula !...
 KAIET - Salbai batek ere maitatuko zian !

- MANEZ - Erran gabe doa. Nola egin bertzela ?
 KAIET - Ele goxo batzu erran ondoan haren kontsolatzeko, atera ginitian, eta galdegin nian Páarresi zer zion nexkato adoragarri hartaz... Ez zian ohartu ere zoin zen ederra eta miresgarria !...
- JOSEP - Hoin xeheki mintzatuz, bihar artio hemen gira. Nik kondatuko daiat ixtorioa bi hitzez. Sua lotu zian bereala nagusiaren bihotzean. Ez zian bizitzen ahal desesperatuaren kontsolatzerat joan gabe... Kexatzen zaizkok nexkatoaren etxeoak, arduraxko heldu dela maitearen ikusterat, eta ezkondu beharko duela hoin usu agertzekótz. Hogoí egun huntan ezkondua duk !...
- MANEZ - A ! banuk ! banuk !...
 KAIET - Eta horien gainerat ez ahantz biziki pobrea dela delako nexkatoa, eta ez dutala deusetan laguntzen ahal...
- MANEZ - Ez deia bertzerik ?
 JOSEP - Mementoko ba diaguk ba aski ! ...
 MANEZ - Bainan zer zirezte hoin gauza ttipiarentzat durduzatuak ? Balio baitu segur ! (Josepi) Eta hi, Josep, ez hiza ahalge hola beldur izaiteko, holako gizon azkarra izanki eta ? Beharrik hemen bainuk ni azeri zaharra !...
- JOSEP - Aitor diat ez naizela hi bezain abila !
 KAIET - Xo ! Kasu ! Huna ene Gaxuxa maitearen urratsa ! (Xutitzen da eta ba doa aterat)

III. GAXUXA - MANEZ - KAIET - JOSEP

- KAIET - Sar zaite sar, Gaxuxa (Jartzen dira)
 GAXUXA - Errazu, Kaiet, egia deia Josepek Koxepari erran diona, zure aita gibelerat heldu dela, eta ezkontarazi nahi zaituela bertzalde. (Mutilak xutik)
- KAIET - Ba Gaxuxa maitea. Eta ez duzu asmatzen ahal zer mina egiten dautaten berri horiek ! Bainan zer duzu ? Zer zira nigarrez ari ? Zendako nigarrez ? Dudatzen duzua ene leialtasunaz ? Ez dakizua zer amodioa dutan zure alderat ?
- GAXUXA - Ba, Kaiet, ba dakit ba maite nuzula, bainan ez dakit beti maitatu nuzunetz...
- KAIET - Bizi ditakeia zu maitatu gabe ?
 GAXUXA - Entzun dut, Kaiet, gizonen amodioa emazten amodioa baino lasterrago hiltzen dela... Gizonen su eta garrak pizten diren bezain errexki hiltzen direla !...
- KAIET - A gaixo Gaxuxa ! Ene bihotza ez da beraz bertze gizonen bihotza bezalakoa. Ni segur naiz hil artio maitatuko zaitudala !
- GAXUXA - Sinesten dut ba maite nuzula eta maitatu nahi : bainan beldur naiz gure aitak bertzelakatuko zaituela : eta hori gerta baladi, segur naiz bihozminarekin hilen naizela !
- KAIET - Ez du aitak deus ikustekorik gure amodioan, ene Gaxuxa ederra ! Ene herria bera utziko dut zu utziko zaitudan baino lehen ! Ikusi baino lehen ere hastio dut jadanik aitak enetzat daukan emazte-gaia. (Xutitzen da) Ez naiz gaxtoa, bainan nahiago nuke ito baladi itasoa iragaitean ! Ez nigar egin, Gaxuxa, zure nigarrek hilarazten naute !...
- GAXUXA - Nahi duzunaz geroz nigarrak xukatuko ditut, eta egonen naiz osoki Jainkoaren nahiari...
- KAIET - Jainkoak lagunduko zaitu !
 GAXUXA - Leial egoiten bazaizkit, zerua alde izanen dut !
 KAIET - Leial egonen niz ba segur !

- GAXUXA - (Xutituz) Beraz uros izanen niz !
- MANEZ - (Josepi) Ez da ez hain xorua : eta ez da ez hain gaizki !...
- KAIET - Huna gizon bat, nahi badu, laguntzen ahal gaituena.
- MANEZ - A ! Zin egina nuen ez nintzala gehiago munduko aferetan sartuko !
Bainan... aski otoizten banuzue... beharbada...
- KAIET - A, ene otoitzak aski badituk, otoi, otoi jar hadi gure untziaren gidari !
- MANEZ - (Gaxuxari) Eta zuk ? Ez duzu deusik erraiten ?
- GAXUXA - Otoi, otoi, gure amodioaren aingeru begirale bilaka zaite !
- MANEZ - Gizona nahi dut izan ! Eginen dut ba zerbait !
- KAIET - Jakintzak !...
- MANEZ - Xo !... (Gaxuxari) Zoazi zu hemendik, eta zaude trankil !...
(Ba doa) (Kaieti) Eta zu, egon azkar aita heldu delarik !
- KAIET - Aitor diat ba frango beldur naizela... Biziki herabea nuk ene jitez !
- MANEZ - Behar duzu biziki azkar eta fermu agertu aita heldu delarik.
Bertzenaz gaina hartuko dautzu haur bat bazine bezala !
- KAIET - Egin ahalak eginen ditiat !
- MANEZ - Oraidanik behar duzu prestatu. Hea, burua xut, begiak erne,
kopeta hori gora !
- KAIET - Hola ?
- MANEZ - Gehixago ! Gehixago !
- KAIET - Hola ?
- MANEZ - Bon ! Eman dezagun aita naizela. Errepostua emanen dautazu fer-
muki hura banintz bezala : "Zer ! bandila zirtzila ! Seme ar-
negatua ! Nola menturatzen haiz ene aintzinean agertzerat ?
Zer ? Holako egitatearen ondotik ez haizela ahalge ? Hori deia
ene lan guzien saria ? Hori deia aitari zor dukan errespetua ?
Piltzarra, aitaren baimenik gabe ezkondu haizela ? Emak bada
errepostu pilda tzar madarikatua !" Bainan zer ? Harriturik
zaude !...
- KAIET - Iduritzen zautaian aita entzuten nuela !
- MANEZ - Eta ba. Hortako duzu bada ez inuxenta bezala egon behar !
- KAIET - Kasu ! Orai fermuago izanen nuk eta ihardetsiko deiat beldurrik
gabe !
- MANEZ - Segur ?
- KAIET - Ba, ba, segur !
- MANEZ - Xo !... Huna aita heldu !
- KAIET - A Jainkoa ! Xahu nuk ! (eskapatzen da)
- MANEZ - Alo Kaiet, zaude hemen ! Horra eskapatu da ! Zer jende ulia !
Ikus dezagun zer dion zaharrak !
- JOSEP - Zer behar zioiat erran ?
- MANEZ - Utz nezak eta segi !

IV. JOANES - MANEZ - JOSEP

- JOANES - (Ustez bera den) Nork ikusi du sekulan holakorik !...
- MANEZ - Denak bazazkik, eta hain duk erotua nun bere buruarekin mintzo
baita.
- JOANES - Zer kopeta !
- MANEZ - Hea zer dion !...
- JOANES - Nahi nuke jakin zer dioten ezkontza eder hortaz !
- MANEZ - Zaude trankil, jakinen duzu ba...
- JOANES - Ukatuko dautatea egin dutena ?
- MANEZ - Ez gaizoa ez !

- JOANES - Arrazoinka hasiko direa ?
- MANEZ - Berdin ba...
- JOANES - Zer uste dute ala lokarraraziko nautela beren ixtorio pollitekin ?
- MANEZ - Behar bada...
- JOANES - Heien prediku guziak debaldetan izan dira !
- MANEZ - Ikusiko dugu.
- JOANES - Ez dautate ez deusik sinetsaraziko !
- MANEZ - Ikusiko dugula !
- JOANES - Ezarriko dut ba ene semetto hori leku segurerean !
- MANEZ - Gu ere hor izanen gaituk ba !
- JOANES - Josep aldiz joka xehatuko dut !
- JOSEP - (Gora) Harrituko nindian ahantzi banindu !
- JOANES - (Itzulirik) To ! Horra nun ziren ene familiaren zaintzale guziz zuhurra, gure gazten aingeru begirale ernea !
- MANEZ - (Bien artean jarriz) O Jauna, zoin kontent naizen zure berriz ikusteaz !
- JOANES - Agur Manez ! (Josepi) Ene manuak untsaxko segitu dituzula ! Ene semea biziki untsa gobernatu da ni Ameriketara nintzalarik !...
- MANEZ - Biziki osagarri onean itzuli zira !
- JOANES - Askitto untsa (Josepi) Ez duka hitzik ateratzen zartzaila !
- MANEZ - Erasian nahi duzu arizan ?
- JOANES - Ba, erasian nahi diat arizan !
- MANEZ - Eta norekin ?
- JOANES - Piltzar horrekin !
- MANEZ - Zertako ?
- JOANES - Zertako ? Ez duka jakin zer gertatu den ni falta nintzalarik ?
- MANEZ - Entzun dut ba zerbaixka...
- JOANES - Zer zerbaixka ? Holako egitatea !
- MANEZ - Arrazoina duzu ba zure gisan...
- JOANES - Holako jukutria behar zutela egin ?
- MANEZ - Egia duzu.
- JOANES - Seme bat ezkontzen aitaren baimenik gabe ?
- MANEZ - Ba, arrazionak ba dituzu ba hola mintzatzeko... Baina, ene gostuko, ez du ez balio hoinbertze arrabots egitea !
- JOANES - Nik oihuka nahi diat arizan ! Ez duka uste arrazoin guziak ba ditudala samur izaiteko ?
- MANEZ - Ba ba segurki. Ni ere samurtu nintzan ba berri hori jakin nuelarik, eta zure semeari erasiak egin niozkan. Galdegin zozu ori ez dituenetz entzun bereak eta asto beltzarenak ! Erran nion segur hori zuenetz aitaren alderako errespetua. Ez zinen ni baino hobeki mintzatuko !... Baina azkenean ikusi dut ez dela ez iduri bezain gaizki arizan...
- JOANES - Zer derasak ? Ez gaizki arizan ? Nik begiak itzultzeko artean, ezagutzen ez duen neska tzar batekin ezkontzea ?
- MANEZ - Zer nahi duzu ? Hala beharra !...
- JOANES - To, to, arrazoin ederra hori ! Hala beharra ! Aski diaguk beraz norbait ebastea, hiltzea, eta gero aintzinean bezain garbi, hala beharra delakotz !
- MANEZ - O ho ! Ez dut hori erran nahi ! Bakarrik diot ez zuela bertze gisan egiten ahal !...
- JOANES - Eta zertako jua da otsoaren ahorat ?
- MANEZ - Zer uste duzu ala denak zu bezain gizon zuhurrak direla ? Gazteak gazte dira ! gazte eta ero, zentzaturen gero ! Ez dira ez niholere beti zuhurki ibiltzen ahal... Behazu ori gure Piarres ! Ene erran eta erasia guzien gatik, zure semeak ez bezalako astokeria egiten du ori ! Zuk ere gazte zinelarik, ez ote duzu sekulan arinkeria horietarik egin ?...
- JOANES - Ba ba, baina, izarian egon nindian... obretarat erori gabe !

- MANEZ - Zer eginen zuen ? Presuna gazte bat errekontratu du arras hartaz agradatua. Zutarat du hori : zu bezala hori ere ikusi orduko emazte guziek maite dute ! Xarmagarria kausitzen du, bisitak egiten diozka, elgarri hasten dira ixtorio kondan bi xori bezain maitagarri, ixtorioan ondotik zombait ele goxo eta gero... Dena den, etxeokok planta hortan hatzeman dute eta ezkontarazi...
- JOSEP - Azeri zaharra !
- MANEZ - Zer nahi zinuén ? Bere burua hil zezan ? Hila izaitea baino hobe du ba ezkondua izaitea !
- JOANES - Ez zautateian errana gauzak hola iragan zirela !
- MANEZ - Galdegin zozu hori Josepi. Ez zautzu bertzela mintzatuko.
- JOANES - Bortxaz ezkondu dea ?
- JOSEP - Ba ba, untsa bortxaz.
- MANEZ - Zer naiz ni gezurtua ?
- JOANES - Notario bat behar zian bereala mintzatu bortxatu zutela !
- MANEZ - A, hori ez du egin nahi ukan.
- JOANES - Hori egin balu, nik errexkiago hautsaraziko nian ezkontza.
- MANEZ - Ezkontza hautsaraziko ?
- JOANES - Eta ba...
- MANEZ - Ez duzu ez hautsaraziko !
- JOANES - Nik ez dutala hautsaraziko ?
- MANEZ - Ez !
- JOANES - Zer ? Ez dituda hor ukanen aitaren dretxoak eta semeari egin dioten bortxa ?
- MANEZ - Semea ez duzu akort izanen...
- JOANES - Ez dela akort izanen ?
- MANEZ - Ez ez !
- JOANES - Ene semea ?
- MANEZ - Zure semea ! Zer uste duzu ala aitortuko duela beldurrez ezkondua dela ? Ez du ez aitortuko ! Ahalge egingarri litake, zu bezalako aita baten semea izanki eta, aitor baleza beldurrez emana duela bere baia.
- JOANES - Untsa kexu nuk to !
- MANEZ - Zure eta bere ohorearen gatik, dener erran behar du bere baitarik ezkondua dela.
- JOANES - Eta nik, ene eta haren ohorearen gatik, nahi diat bertzela mintza dadin !
- MANEZ - Ez, segur naiz ez duela holakorik eginen.
- JOANES - Bortxaz beharko dik egin !
- MANEZ - Erraiten dautzut ez duela holakorik eginen !
- JOANES - Ba eta hola ! Edo premuga kenduko zioiat !
- MANEZ - Zuk ?
- JOANES - Nik !
- MANEZ - Bon !
- JOANES - Zer bon ?
- MANEZ - Ez diozu ez premugoa kenduko !...
- JOANES - Nik ez diotala premugoa kenduko ?
- MANEZ - Ez !
- JOANES - Ezetz ?
- MANEZ - Ez !
- JOANES - To ! Hori pollita diaguk ! Nik ez diotela semeari premugoa kenduko !
- MANEZ - Erraiten dautzut ezetz !
- JOANES - Eta nork baztertuko nik ?
- MANEZ - Zuhurrek...
- JOANES - Nihurrek ?
- MANEZ - Ba. Ez duzu ez hortako aski kopeta izanen.
- JOANES - Ba eta nola !

MANEZ - Trufaz ari zira...
 JOANES - Ez ez ez, ez nuk trufagura !
 MANEZ - Aitaren amodioak eginen du bere lana.
 JOANES - Ez dik eginen !
 MANEZ - Ba ba...
 JOANES - Nik erraiten daiat hola izanen dela.
 MANEZ - Ele alferrak !...
 JOANES - Ez erran ele alferrak direla !
 MANEZ - Ezagutzen zaitut ba : hain zira ona zure jitez !
 JOANES - Ez nuk ona. Gaxtoa nuk nahi dutalarik ! Aski hortarik, kexatzen hasia bainuk ! (Josepi) Hail hortik zirtzila, hail ene seme herbailaren bila ! Behar zioiat ene berri hitsa Leoni kondatu.
 MANEZ - Jauna, ene beharra balin-baduzu, zure zerbitzari...
 JOANES - Milesker. A! Ez balitz bederen ene seme bakarra ! Bizi balitz oraino ene alaba gaixo hura !

V. MANEZ - JOSEP

(Manez jartzen da irriz mahainean)

JOSEP - Zer gizona hizan ahatik ! Bide onean dituk gure ardiak ! Bakarrik, sos beharretan gaituk. Hartzale guziak xakurrak bezala inguruan erausika.
 MANEZ - Ago gustian ! Bazakiat nik zer egin ! Bakarrik, gizon bat behar nitek hatzeman gure laguntzeko !... Ago... Ago ixtant bat... (xutik mahainaren aintzinean) Sarrak ponet hori giza tzar bat bahintz bezala... Aintzina zak zango makur hori... Ago horren gainean berme... Emazkik eskuak sahetsean... Begiak aterazkik pindarka... Et orai kurri hadi errege bat bezala !
 JOSEP - Ez diat behinere erregerik ikusi !
 MANEZ - Behazak, hola ! Bon, ongi ! Segi nezak ! Bazazkiat nik segeretu batzu begitartez eta botzez kanbiarazteko !
 JOSEP - Kasumak : polizarekin ez diat gero nik jostatu nahi !...
 MANEZ - Ago gustian. Haurride batzuek bezala erditik eginen ditiaguk irriskuak ! Bizpahirur urte presundegi bildurik ere, zer duk hori gu bezalako gizon balios batzuentzat ?

BIGARREN AGER-ALDIA

TOKIA - Hala nola oihan edo baratze batean.

I. JOANES - LEON

(Sartzen dira)

- LEON - Egungo aroarekin, gure jendeak hemen izanen ditugu egun berean. Bakarrik ene alabak ez ditu gauzak uste bezala hatzemanen. Zure semeak guk hedatu sare guziak nahasi ditu ! ...
- JOANES - Ez kexa ! Denak ozkan ezarriko ditut nik, eta zalu !
- LEON - Barkatu ene ausartzia, bainan arta gehiago behar litake hartu gazten altxatzeaz ! ...
- JOANES - Erran gabe doa, bainan zertako erraiten dautazu hori ?
- LEON - Zabala zeno ez delakotz xuxendu da arbola makurra gertatu ! ...
- JOANES - Gerta ditake hori ere... Bainan zer erran nahi duzu ?
- LEON - Zer erran nahi dutan ?
- JOANES - Bai.
- LEON - Behar den bezala altxatu bazinu zure semea, ez zaitzula holako jukutriarik eginen !
- JOANES - Biziki untsa ! Beraz zuk ere behar den bezala altxatu duzu zure semea ?
- LEON - Dudarik ezin ! Eta hats onean egonen nintzan holako joko bat egin balaut !
- JOANES - Eta hoin untsa altxatu seme horrek, eneak baino jukutria haundiagoa egin balu ?
- LEON - Nola ?
- JOANES - Nola ?
- LEON - Ba, zer erran nahi duzu ?
- JOANES - Erran nahi dut, Leon, ez direla hoin laster kondenatu behar bertzen egitateak ! Eta bertzen salda arranguratu nahi dutenek, behar dutela lehenik so-egin zer duten beren dupinaren barnean !...
- LEON - Hauxe dira mixterioak !...
- JOANES - Eman daukitzut behar ditutzun argi eta xehetasunak !
- LEON - Ez duzu arabez zerbait entzun ene semeaz ?
- JOANES - Ba ditake ba !...
- LEON - Eta zer ?
- JOANES - Zure Manezek, planta hartan ikusi nauelarik, ez daukit larrienak baizik salatu : bainan xehetasunak, berak edo bertze norbaitek emanen daukitzu. Ni ba noa bereala lege-gizon baten mintzatzerat. Ez adiorik !

II. LEON - PIARRES

- LEON - Zer ote ditake ixtorio hori ? Horrena baino itsusiagokoa !... Bainan zer egin ditake itsusiagokorik ? Aitaren baimenik gabe ezkontzea ez ote da itsuskeritan itsusiena ? (Piarres sartzen da) To ! Hor zirea ?
- PIARRES - (Lasterka aitaren besarkatzerat) A ! ene aita, zoin kontent naizen zure berriz ikusteaz !
- LEON - (Ez du besarkatu nahi) Emeki ! emeki ! Mintza gaiten serioski !
- PIARRES - Lehenik besarkatu nahi zaitut, eta gero...

LEON - (Kasatuz) Erran dautzut emeki !
PIARRES - Zer ? Ez duzu nahi, aita, ene bozkarioa sala dautzutan besar-
katuz ?
LEON - Ba bainan, lehenik badugu auzi bat xuritzeko !
PIARRES - Eta zer ?
LEON - Hea, jar zaite eni so !
PIARRES - Nola ?
LEON - So egin ene begietarat !
PIARRES - Eta gero ?
LEON - Zer pasatu da hemen ?
PIARRES - Zer pasatu den ?
LEON - Ba. Zer egin duzu ni Ameriketara nintzalarik ?
PIARRES - Zer nahi duzu, aita egin dezadan ?
LEON - Ez dautzut erraiten zuk egin duzuna nik nahi dutala, bainan
galdegiten dautzut zer egin duzun !
PIARRES - Nik ? Ez dut deus egin zuk arrangura hartzeko !
LEON - Deus ere ?
PIARRES - Ez !...
LEON - Ba duzu kopeta !
PIARRES - Segur bainiz ez dutala deus egin gaizkirik !
LEON - Alta Manezek salatu ditu bada zure berriak !
PIARRES - Manezek ?
LEON - To ! to ! to ! Izen horrek durdurazten zaitu !
PIARRES - Manezek zerbait erran baitautzu nitaz ?
LEON - Ez da hemen tokia afera horren xuritzeko. Sarrisago ikusiko
dugu ! A, traidorea ! ni desohoratu behar nindukala gisa hortan ?
Ukatzen haut eta arnegatzen seme bezala ! Juaiten ahal hiz ene
begien bixtatik eta sekulakotz !

III. PIARRES - KAIET - MANEZ

PIARRES - (Bakarrik) Gisa hortan saldu nauela ! Hoinbertze arrazoin ba-
duelarik ene hutsen gordetzeko ! Manezek aitari berria salatu ?
Ai urdia ! Urrikotuko zaik ba hire jukutria !
KAIET - (Sartzen dira) Gaizo Manez ! Ba nian to hire beharra ! Zer
gizona hi ! Eskerrak Jainkoari hor baihintzan ene laguntzeko !
PIARRES - To ! Hor zirezteia ? Biziki kontent naiz zure kausitzeaz, man-
drena !
MANEZ - Zure zerbitzari, jauna. Sobera ohore egiten dautazu !
PIARRES - (Makilaz jo nahiz) Zer zira trufagura ? Erakutsiko dautzut
ba nik !...
MANEZ - Jauna !...
KAIET - (Bien artean jarriz) Oho ! Piarres !...
PIARRES - Ez, Kaiet, ken zaite hortik !
KAIET - (Atxikiz eta baztertuz) Otoi !
PIARRES - (Manez jo nahiz) Utz nezazu ene koleraren liertzerat !
KAIET - Gure adixkidantzaren izenean, otoi ez zazula jo !
MANEZ - Bainan zer egin dautzut jauna ?
PIARRES - (Jo nahi) Zer egin dukan, traidorea !
KAIET - (Atxikiz) E ! emeki ! emeki !...
PIARRES - Ez Kaiet, nahi dut nihauri kofesa dezan egin dautan jukutria.
Ba, pilda tzarra, ba zakiat ba hik egin dautakan joko pollita :
orai berean jakina diat, eta ez huen beharbada uste hire sege-
retua salatuko zautatela !... Bainan kofesio bat nahi diat
hihaurek eginik, edo bertzenaz makila ferratu huntaz alde bat
bertze zilatzen haut !

- MANEZ - O Jauna ! Ez duzu ez holakorik eginen !
- PIARRES - Mintza hadi beraz !
- MANEZ - Zerbait egin baitautzut nik, jauna ?
- PIARRES - Ba ihizia, eta hire kozientziak salatzen bide dauk zer egin dukan !
- MANEZ - (Zin eginez) Hara ! ez dakitala batere !...
- PIARRES - (Jo nahiz) Ez dakikala ?
- KAIET - (Atxikiz) Piarres !
- MANEZ - Bon bon !... Hola denaz geroz jauna, aitortzen dautzut ba ene adixkidekin edan dutala, duela zonbait egun present ukan zinuen Espainiako arno xahar hura... Arraildura bat egin nion barrikari eta ura ixuri inguruan uste izan zinezan arnoa zela eskapatua.
- PIARRES - Zimino zaharra ! Hik edana baitzian ene Espainiako arnoa ! Eta nik hoinbertze erasiatu bainian neskatoa ustez eta harek egina zautan jokoa !...
- MANEZ - Ba, jauna, eta barkamendu galdatzen dautzut !
- PIARRES - Kontent nuk hori jakinik ; bainan orai ez duk hortaz auzia !
- MANEZ - Ez dela hortaz ?
- PIARRES - Horrek baino gehiago hunkitzen nik bertzeak, eta hire ahotik nahi diat jakin !
- MANEZ - Ez naiz oroit, bertze zerbait eginik !...
- PIARRES - Ez duk mintzatu nahi ? (Jo nahiz)
- MANEZ - E !
- KAIET - (Atxikiz) Eztiki ! eztiki !
- MANEZ - Ba, jauna, egia da ba duela hiru aste igorri bainindutzun, arats batez, montra ttipi batekin, maite duzun Espanolika haren ganat, etxerat itzuli nintzan, ene soinekoak lohiz beteak eta begitartea odoletan : eta erran nautzun ohoinek zanpatu nindutela eta montra ebatsi... Nik nuen, jauna, montra hura gordea !...
- PIARRES - Hik baituk ene montra gorde ?
- MANEZ - Ba jauna... ikusteko zer tenore den...
- PIARRES - A a ! Ederrak ikasten ditiat hemen ! Eta zer sehi leialaren jabe naizen ! Bainan ez daiat oraino hori galdegiten !
- MANEZ - Ez dela hori ?...
- PIARRES - Ez trahidorea ! Bertze gauza bat duk hik aitortu behar dukana !
- MANEZ - Hauxe da ixtorioa !
- PIARRES - Mintza hadi laster : ez diat astirik !
- MANEZ - Hortan dira, jauna, ene bekatu guziak !...
- PIARRES - (Jo nahiz) Dēnak hortan ?
- KAIET - (Atxikiz) E !
- MANEZ - Bon bon ! Oroit zira, jauna, duela sei ilabete, gau batez, mamu batek joka xehatu baitzinituen... eta lepo zintzurak hauster baitzinueen, eskapatzean, zilo batetarat erori eta ?
- PIARRES - Ba, eta ?
- MANEZ - Ni nintzan mamu hura !...
- PIARRES - Bandila ! Hi baihintzan mamu hura ?
- MANEZ - Ba, jauna, bakarrik zure iziarazteko, eta zuri gauaz ibiltzeko usaiaren galarazteko !...
- PIARRES - Oroituko nuk ba tenorea jiten delarik orai ikasten ditudanez !... Bainan haugi punperat ! eta aitorak zer erran diokan ene aitari ?
- MANEZ - Zure aitari ?
- PIARRES - Ba, pilda tzarra, ene aitari !
- MANEZ - Ez dut ikusi ere jinez geroz !
- PIARRES - Ez dukala ikusi ?
- MANEZ - Ez ez !
- PIARRES - Segur ?
- MANEZ - Segur ! Berari erranaraziko diot gauza hori !

PIARRES - Alta berak errana zautak !
 MANEZ - Salbu zu eta ; ez du egia erran !

IV. PEIO - PIARRES - KAIET - MANEZ

PEIO - Berri txar bat, jauna, zure amodioarentzat.
 PIARRES - Eta zer ?
 PEIO - Espanolek berekin ereman nahi dute Kattalin, eta kargatu naute zuri jakinarazteaz, bi oren barne beharko duzula hitzeman dirua ekarri ; edo bertzenaz, betikotz galduko duzula !
 PIARRES - Bi oren barne ?
 PEIO - Bi oren barne !
 PIARRES - (Bakarrik) Bainan nundik atera behar diat diru hori : bortz ehun mila libera ! Eta gainerat, bi oren barne !... (ixilik... Manez kontent) A gaizo Manez ! Hire beharretan nuk !...
 MANEZ - (Fier-fierra) A gaizo Manez !... Ene beharrik ez delarik, zukurrentzat ere ez on ; eta orai : "gaizo Manez" !...
 PIARRES - Barkatzen dauzkiat hik aitortu huts guziak, eta handiagorik egin balinbaduk ere ba.
 MANEZ - Ez, ez, ez barka. Hor duzu makila ferratua. Atera, atera tripak. Ez dut bertzerik galdegiten. Zoin kontent izanen naizen hiltzen banuzu !
 PIARRES - Ez gaixo Manez. Hire biziaren beharretan nuk ene amodioaren zaintzeko !
 MANEZ - Ja ! Ja ! Ja ! Hobe nuzu garbitzea !
 PIARRES - Sobera baliosa haiz ! Dukan izpirituarekin zer ez dezakek egin ?
 MANEZ - Ez ! Hil nezazu !
 PIARRES - Utzik gogoeta horiek eta lagunt nezak.
 KAIET - Manez, lagundu beharko duzu ba naski.
 MANEZ - Zer ? Holako erauntsaldia bildu eta ?
 PIARRES - Otoi ahantzak ene kolera bulta.
 KAIET - Ba Manez, zerbait egin behar duk.
 MANEZ - Horrek erran gaizkiak ezin iretsiak ditut !
 KAIET - Alo Manez ! Ahantzi behar dituk.
 PIARRES - Manez. Zer nuk estremitate huntan utzi nahi ? Ez dakik zer den amodioa ?
 MANEZ - Uste ez nuelarik horrelako laido bat eni egitea !
 PIARRES - Aitor diat gaizki egin dutala.
 MANEZ - Eni erran behar ohoina, bandila, frikuna, tzarpila, pilda, buhamia naizela !
 PIARRES - Ai ! Zonbat dolu dudan horiek erranik !
 MANEZ - Makila ferratuaz tripak egin nahi !
 PIARRES - Barkamendu galdegiten daiat bihotzetik (Belaunikatzen da) Belau-niko jarri behar balinbadiat jarriko nuk, bainan lagunt nezak !
 KAIET - Alo Manez ! Zer zira harriz egina ?
 MANEZ - Xuti zaite, bainan bertzaldian ez kexa hoin laster.
 PIARRES - Zerbait eginen duk enetzat ?
 MANEZ - Ikusiko dugu !
 PIARRES - Bainan oroit epe laburra dugula !
 MANEZ - Zaude gostuan. Zonbat behar duzu ?
 PIARRES - Bortz ehun mila libera.
 MANEZ - Eta zuk ?
 KAIET - Berrehun mila libera.
 MANEZ - Sos hori zuen aiter kenduko diotet (Kaieti) Zure aitarentzat badakit jadanik zer egin ! (Piarresi) Zurearentzat... Bainan xo ! Huna Kaieten aita. Lot gaiten huni hemen dugunaz geroz. Zoazte biak hemendik (Kaieti) Eta zuk errako zu Josepi jin dadin laster bere lanaren egiterat.

V. JOANES - MANEZ

- MANEZ - (bere baitarako) Gaizoa ! ahusmarrian ari duk !
- JOANES - (Ustez bakarrik zela) Mutiko tristea ! Holakorik egin behar zuela ! Oraiko gazteak deus ez dira !
- MANEZ - Zure zerbitzari jauna.
- JOANES - Agur Manez.
- MANEZ - Zure semeaz ari zira amentsetan ?
- JOANES - Aitor diat bihotzez biziki min egiten dautala gauza horrek.
- MANEZ - Zer nahi duzu, bizia hola da. Batean oilaxkoa delarik ortziralea eta bertzean gatusa lo dagolarik saguak dantzan. Beti prest egon behar nundik zer gertatuko den !
- JOANES - Izigarri duk ba halere izigarri !
- MANEZ - Ez izi jauna. Kasko haundiko gizon batek dio aita bat etxetik faltatzen balinbada, gibelaratekoan asmatu behar dituela gerta ditazken gaitz guziak : etxea errea, dirua ebatsia, emaztea hila, semea estropiatua. Etxeratu eta kontent izanen da orduan gaitz horietarik bat bederen ez balin bazaio gertatu. Nik beti hola egiten dut. Etxean sartzen beha nago noiz ukanen ditudan erasiak, ostikoak, makil-ukaldiak. Zerbaitetarik eskapatzen balin banaiz eskerrak bihurtzen ditut bereala Jainkoari !
- JOANES - Biziki untsa ! Bainan ezkontza potret gabeko hori ? Nik ene semeari emaztegaia hatzemana eta, harek behar zuela kopeta bere gostuan ezkontzeko ? Ez dik ez azken hitza errana ene semetto horrek. Abokatak mintzatu ditiat eta ezkontza hautsaraziko diat.
- MANEZ - A gaixo gizona ! Ez holakorik egin ! Auziek etxeak laster errekaratzen dituzte ! Auzilari, hil mezulari !
- JOANES - Arrazoina duk, bainan zer egin ?
- MANEZ - Banakike ba zerbait. Gaixoa ni ! Bihotza erdiratzen zaut zu hola triste ikusi eta. Izigarri duzu ba gero aita familiako bat planta hortan ikustea. Bertzenaz ere biziki atxiki niz zuri.
- JOANES - Hire hitzek hunkitzen naue.
- MANEZ - Ikusi dut beraz, neska horren anaia. Bazinaki nor den ! Beti makila ferratua eskuan. Nundik nori tripak ateratuko dituen. Guk baso bat arnoa edaten dugun bezain aise garbitzen du gizona. Ba ditu jadanik hamar ilak. Aipatu diot ezkontza hori. Erran diot kexu zirela eta ezkontza hautsaraziko duzula. Azkenean nik dakita zombait predikuen ondotik onartarazi diot sos puxka batentzat gauzak antola ditzan.
- JOANES - Eta zombat nahi dik ?
- MANEZ - Lehenbizian zer-nahi galdegin zuen.
- JOANES - Eta zer ?
- MANEZ - Asma ez ditazken gauzak nahi zituen.
- JOANES - Bainan zombat ?
- MANEZ - Bost-pa-sei ehun mila libera.
- JOANES - Bimila hamaseia ! Juan deia burutik ?
- MANEZ - Hori diot bada erran. Erran diot ez zirela aski astoa diruketa horren emaiteko. Zer nahi dela huna itzuli-mitzulien ondotik zertaratu giren. Holaxe mintzatu zaut : "Armadan engaiatu behar dut aintzindari gisa. Zaldi bat beharko dut erosi, heldu da gutienetik iruetan-hogoi mila libera.
- JOANES - Bon, bon, emanen dazkiat ba bere hiruetan-hogoi mila liberak.
- MANEZ - Zaldiaren muntadurak, bi pistoleta, hogoi mila libera.
- JOANES - Hiruetan-hogoi eta hogoi, laueta-hogoi mila libera ?
- MANEZ - Xuxen-xuxena.

- JOANES - Hainitz duk. Bon bego beraz !...
- MANEZ - Zaldi txar bat bere ordenantzarentzat ... hogoi-ta-hamar mila libera.
- JOANES - Zer debru ! Doala antzara ferratzerat ! Ez dik pilik ukanen.
- MANEZ - Jauna !
- JOANES - Ez, errement hutsa duk !
- MANEZ - Zer du haren ordenantzak oinez juan behar ?
- JOANES - Doala nahi duen bezala, eta nagusia berdin !
- MANEZ - Bainan jauna, sos puxka horrek izitzen ? Auzitan sartzen balin-bazira gehiago beharko duzu xahutu.
- JOANES - Bon, bon, goazen aintzina.
- MANEZ - Beharko du gero mando bat.
- JOANES - Zer ? Mando bat ? Juan dea burutik ? Goazen jujetarat.
- MANEZ - Otoi jauna !...
- JOANES - Ez, ez, ez.
- MANEZ - Bainan, mando ttipi-ttipi bat...
- JOANES - Ez eta asto bat ere.
- MANEZ - Ikusazu bada...
- JOANES - Ez, nahiago diat auzia eman.
- MANEZ - Zer diozu ? Abokatek bizirik larrutuko zaituzte ! Emazu behako bat auzitegi bazter horietarat. Lehenik auzia, gero apela. Zonbat aztapar luze anartean : uxer, juje, abokat, prokuradore, eta heien mutilak bertzaalde. Untsa kexu dira zure zuzenaz ! Zure gainean elgar adituko dute xarmanki eta zu beti petzero !... Polizak lekuko faltsoak bilduko ditu, uxerrak paper faltsoak eginen, zure abokatak auzia utzirik prediku luze batzu eginen auzitik kanpo, prokuradoreak kontrarioari salduko zaitu merkantuan ahatxea bezain aise. Eta azkenekotz jujea bera bilduko dute ondo dituen elezuri eta amorant batzuek ! Auzitegia ifernu bat da. Nik segurik nahiago nuke han sartu baino "Escoutepluy"ko putzian ito !
- JOANES - Zonbat luke balio delako mando horrek ?
- MANEZ - Jauna, mandoarentzat, bere zaldia-arentzat, kraixtu, zela eta bi pistoletentzat, eta ostalerrari zor dituen zonbait pirtxilarientzat, orotarat berrehun mila libera ditu bakarrik galdegiten.
- JOANES - Berrehun mila libera ?
- MANEZ - Ba !
- JOANES - (Harat hunaka furian) Alo, alo, auzitan ariko gira !
- MANEZ - Gogoetak eginzkitzu !
- JOANES - Auzitan ariko naizela !
- MANEZ - Ez zitela eror...
- JOANES - Auzitan ari nahi dut !
- MANEZ - Bainan auzitan artzeko behar da diru. Beharko duzu lehenik sosa auziaren pizteko. Gero inkestarendako. Gero uxerraz parte emaiteko. Gero aintzinekoendako. Gero kontseilariendako. Gero prokuradorearen harat-hunaten dako. Gero abokaten mintzatzeko eta heien mintzarazteko. Gero uxerraren ixkirioendako. Gero dretxoen eta tatsen pagatzeko. Eta gainerat zonbait oilaxko, gasna, aperitifa eta afari denen balakatzeko. Miliunarekin jalitzen balinbazira, gizon abila izanen zira. Aldiz gizon hunek sos puxka horrentzat trunkil uzten zaitu !
- JOANES - Zer ! Berrehun mila libera !
- MANEZ - Bai eta oraino irabazitan izanen zira ! Karkulak egin ditut ene buruarekin. Denak konda, auzitan hasiz, miliun bat eta erdirekin ez zira kitto. Nik segurik auzitan hasi baino nahiago nuzke bi miliun eman.
- JOANES - Ez nuk hortaz kexu. Eta erran dezatela to zerbait nitaz jaun abokat kixkil horiek !
- MANEZ - A gaixoa ! Zuk burua itzuli artean zakuan sartuko zaituzte.

- JOANES - Ez die gero asto batekin afera !
 MANEZ - Nahi duzuna eginen duzu, bainan zu banintz, auzitegitik urrun egon nintaike.
 JOANES - Ez ditut ez emanen berrehun mila libera.
 MANEZ - To huna gure gizona !

VI. PIARRES - JOANES - MANEZ

- PIARRES - Errak Manez, nun da Joanes, Kaieten aita ?
 MANEZ - Zendako jauna ?
 PIARRES - Entzun diat auzitan ari nahi duela, eta ene arrebaren ezkontza hautsarazi behar duela.
 MANEZ - Ez dakit hori. Nik dakitana da ez dituela berrehun mila liberak eman nahi. Sobera omen da.
 PIARRES - Tripa ustela ! Ohoina ! Buhame tzarra ! Hatzemaiten balinbadut garbitzen dut ! (Joanes gordetzen da Manezen gibelean)
 MANEZ - O, kasu ! Azkarra da gero Joanes ! Ez da zure beldur.
 PIARRES - Ez ene beldur ? Hemen balitz tripak atera nezozket. (Joanes ikusiz) Nor da gizon hori ?
 MANEZ - Ez da hori Jauna, ez da hori !
 PIARRES - Ez da bederen haren adixkideren bat ?
 MANEZ - Ez jauna, ez. Haren etsai haundienetarik bat.
 PIARRES - Haren etsai haundienetarik bat ?
 MANEZ - Hala da ba !
 PIARRES - Hobe segurki (Joanesi) Joanes bandil tzar haren etsai zirea ?
 MANEZ - Baietz, baietz, hala dela.
 PIARRES - (Eskua fermuki tinkatuz) Ekarrazu eskua. Hitzemaiten dautzut eta zin egiten ene ama zenaren buruaren gainean luzatu gabe zure etsai horren gatik libro izanen zirela !
 MANEZ - Jauna, gure eskualdetan ez dute gero krimarik onartzen !
 PIARRES - Untsa kexu nuk to !
 MANEZ - Kasu emazu ! Badu adixkide. Denak horren alde izanen dira.
 PIARRES - Hobe, hobe segurki ! (makila altxatuz) A ! Hemen balitz ! Nun da ? Jin denak ! (makila karabilarazten du) Ale ! Nun zirezte ? Eup ! Jo ! Bota ! (Manez eta Joanesi buruz) Ai urdiak ! Nun zirezte ?
 MANEZ - He ! He ! Ez gira gu ez, jauna !
 PIARRES - Zer, nitaz hola trufatu behar ?
 MANEZ - (Joanesi) Ikusten duzu zer idaietan den ? Xantza on gáixoa !
 JOANES - (Dardaraz) Manez !
 MANEZ - Zer nahi zinuen ?
 JOANES - Eman beharko ditiat naski berrehun mila liberak.
 MANEZ - Hobe segurki, zure onetan hortaratu baitzira.
 JOANES - Sakelan ditiat : goazen bereala.
 MANEZ - A, ez ! Bota hunat dirua. Ez du jakin behar zu zirela Joanes. Bertzenaz gehiago galdeginen dautzu.
 JOANES - Nahiko nian bada ikusi nola emaiten dukan ene dirua.
 MANEZ - Ez zira eni fida ?
 JOANES - Ba, ba, bainan...
 MANEZ - Alabainan, jauna, edo ohoina niz edo gizon ohoragarri bat. Bat edo bertze. Ez balinbazira fida, ez ene gainean konda.
 JOANES - To, beraz.
 MANEZ - Ez, jauna, ez. Ez eni konfia sosik.
 JOANES - Alo, to !
 MANEZ - Ezetz ! Eta ohoina balinbanaiz ?
 JOANES - To bada ! Bainan kasu bandil horrekin !
 MANEZ - Zaude trankil ! Ez du xoxo batekin afera.

JOANES - Etxera noa.
 MANEZ - Untsa da (Bakarrik) Huna bat ! Eta orai bertzea ! ... To ! Huna nun den ! Zeruak igortzen ditu ene saretarat.

VII. LEON - MANEZ

(Elgarren gibeletik lasterka)

MANEZ - (Alegia Leon ez ikusten) Jainkoa eta Andredena Maria ! Gaixo aita ! Gaixo Leon. Pollita hiz to !
 LEON - Zer derasak nitaz begitartea hoin ilun !
 MANEZ - (Berdin) Ez ote daut norbaitek erraiten ahal nun den Leon ?
 LEON - Zer duk Manez ?
 MANEZ - (Berdin) Nun hatzemanen dut nik Leon, berri hits horren jakinarazteko ?
 LEON - Bainan zer da ? zer da ?
 MANEZ - (Berdin) Debaldetan nabila alde guzietan lasterka haren hatzemaiteko.
 LEON - Hemen nuk, Manez, hemen nuk.
 MANEZ - (Berdin) Nehork asmatzen ahal ez duen xoko batean ditake gaixoa !...
 LEON - (Geldiarazten du Manez) Hep ! Zer hiz itsu ala mozkerra ene ez ikusteko ?
 MANEZ - A jauna ! Ezin hatzeman zira !
 LEON - Oren bat huntan hemen nagok hire aintzinean. Zer duk gero berri ?
 MANEZ - Jauna...
 LEON - Zer ?
 MANEZ - Jauna, zure semea...
 LEON - Eta ! Ene semea...
 MANEZ - Bazinaki zer ezinbertzean erori den !
 LEON - Eta zoin ?
 MANEZ - Gaixo Piarres ! Dixtian frango triste kausitu dut zuk erasiak eginik, eta galdegin daut minaren ahanzteko itzuli bat egin behar ginuela elgarrekin Espainiako muga horieri buruz. Han, bentta batean sartu gira eta atsalaskari ona egin dugu arno nafar hoberenarekin.
 LEON - Ez duk hor deus nigar egitekorik !
 MANEZ - Pertsutan ari ginelarik, karabinero beltz alimale batzu sartu dira gure salan eta paperak eskatu. Guk deusik ez. Miatu gaituzte eta zure semeari hatzeman diote pistoleta bat sakelan. Bereala preso hartu dute eta erran Irunerat eremanen dutela espiongoan hatzemanik, ez balinbadituzu bereala bortz-ehun mila libera largatzen.
 LEON - Debrientxoa ! Bortz-ehun mila libera ?
 MANEZ - Ba jauna. Eta gainerat bi oren barne.
 LEON - Urde karabinero militar beltzak ! Larrutu behar nutela hola !
 MANEZ - Otoi, otoi, laster libraraz zazu zure semea, bestenaz hilen baitute. Oroit zaite zoin maite duzun zure Piarres.
 LEON - Zertarat debru ^{jauna} zian Espainiarat ?
 MANEZ - Ez zuen ez uste hori gertatuko zitzaiola !
 LEON - Hail, Manez, ^{hail} karabinero ustel horier erraiterat justiziari parte emaiten dutala.
 MANEZ - Untsa kexu dira ori zure justiziaz !
 LEON - Zertarat debru juana zian Espainiarat ?
 MANEZ - Hala beharrak nolana erabiltzen ditu gizonak !
 LEON - Manez, hemen agertu behar duk zerbitzari on eta leial bezala.

- MANEZ - Nola hori jauna ?
- LEON - Hail, errotek karabinero kokotero horier ene semea turna deza-
ten eta gero hi har bezaten haren orde nik diru hori bildu arte.
- MANEZ - Oho jauna ! Badakizua zer erraiten duzun ! Uste duzua kara-
binero horiek aski astoak direla ni bezalako perreka baten
hartzeko zure seme ederraren orde ?
- LEON - Zertarat debru juana zen Espainiarat ?
- MANEZ - Ez zuen uste zorigaitza hain urbil zuela. Oroit, jauna, bi
oren bärne dela !
- LEON - Zenbat dutela nahi...
- MANEZ - Bortz-ehun mila libera.
- LEON - Bortz-ehun mila libera ! Ez dutela kontzientziarik ?
- MANEZ - A gaixoa ! Karabineroek kontzientzia ? Leku onean zabilta
onjo-keta ! Ez duzua entzun karabineroek zakurrer eman ziotela
jaterat kontzientzia eta hauk bereala goseak hil zirela ?
- LEON - Bainan badakiteia xuxen zonbat diren bortz-ehun mila libera ?
- MANEZ - Ba jauna, ba dakite ba bortz mila ehun liberako direla.
- LEON - Ai galdu zikinak ! Zer uste dute ala bortz mila ehun liberako
pikak buztanean dituela ?
- MANEZ - Ez du jendaila horrek arrazoinamendurik konprenitzen !
- LEON - Zertarat debru juana zen Espainiarat ?
- MANEZ - Egia, bainan nork behar zuen pentsatu ? Alo, otoi, jauna, mugi
zaite !
- LEON - To, horra ene armairuko gakoa.
- MANEZ - Bon.
- LEON - Idokiko duk !
- MANEZ - Untsa.
- LEON - Han hatzemanen duk gako lodi bat ezkerreko aldean. Hura duk
selauruko gakoa.
- MANEZ - Bai.
- LEON - Hartuko dituk han, kutxa haundi batean kausituko ditukan pilda
zahar eta trapu guziak. Aski dituk gero trapulari perreka bati
saltzea ene semearen erosteko.
- MANEZ - (gakoa itzuliz) Jauna ! Amentsetarik zirea ? Ez ditut ehun
libera ere bilduko zuk erran trastekin ; eta gehiago dena,
ba dakizu zer epe eman dautaten !
- LEON - Zertarat debru juana zen Espainiarat ?
- MANEZ - Zonbat ele alfer ! Utzazu zure Espainia geldirik, eta oroit
zaite denbora ba doala. A gaixo ene nagusia ! Gaixo Piarres !
Ez zaitut gehiago ikusiko ! Memento huntan beharbada Iruñako
bidean zira jadanik ! Bainan Jainkoa da lekuko, nik ene bortz
egin ahalak egin ditudala zure salbatzeko. Galtzen balinbazira
aita baten bihotzonen eskasian izanen da !
- LEON - Ago, Manez baniak sos horren bila !
- MANEZ - Laster egizu, jauna, ikaran nago memento huntan ordu denetz
oraino !
- LEON - Lau-ehun mila libera dituk erran ?
- MANEZ - Ez. Bortz-ehun mila libera.
- LEON - Bortz-ehun mila libera?
- MANEZ - Ba.
- LEON - Zertarat debru juana zian Espainiarat ?
- MANEZ - Arrazoina duzu. Bainan fite !
- LEON - Ez deia bertze piaia lekurik ?
- MANEZ - Egia da. Bainan erna !
- LEON - A Espainia madarikatua !
- MANEZ - (Berex) Bihotzean hartua duela bere Espainia !
- LEON - To, Manez, ez nindian oroit orai berean hunkitua dutala diru
hori urretan, bainan ez nian uste hoin laster horren ganik
berexi behar nuela ! (mintzo delarik harat-hunatka erabiltzen du
besoa eta Manezek berdian hatzeman nahiz). To, hail ene semearen
erosterat.

- MANEZ - Ba jauna.
 LEON - Bainan errotek karabinero zimino debru horier urde batzu direla.
 MANEZ - Ba.
 LEON - Okaztagarri batzu !
 MANEZ - Ba.
 LEON - Ohoin zikin madarikatu batzu !
 MANEZ - Zaude trankil, ikasia dut katixima.
 LEON - Zuzen kontra dauzkatela kentzen ene bortz-ehun mila liberak, ez bizirik ez hilik ez diozkatela emaiten.
 MANEZ - Biziki untsa.
 LEON - Eta sekulan hatzemaiten baditut, bizirik larrutuko ditudala !
 MANEZ - Bon.
 LEON - (Sakelan sartuz moltsa) Hail, hail laster ene semearen bila.
 MANEZ - (Leonen gibeletik lasterka) Eup, jauna !
 LEON - Zer duk ?
 MANEZ - Nun da gero sos hori ?
 LEON - Ez daujata eman ?
 MANEZ - Ez alafede, zure sakelan emana duzu.
 LEON - A ! Bihozminak daitak galarazten burua !
 MANEZ - Ageri da segur !
 LEON - Zertarat debru juana zian Espainiarat ? A Espainia madarikatua ! Karabinero zikin tzarrak, juaiten ahal zirezte debruetan barna !
 MANEZ - (Bakarrik) Ez dituela bere bortz-ehun mila liberak iresten ahal. Alta beharko du ba oraino pekatu semeari sakatu dion gezurra !

VIII. KAIET - PIARRES - MANEZ

- KAIET - Eta, Manez, egin duka deus ere enetzat ?
 PIARRES - Eta ene amodioaren zaintzeko, egin duka deus ere ?
 MANEZ - (Kaieti) Huna berrehun mila libera hire aitaren ganik nik bilduak.
 KAIET - A zer plazerra egiten dautakan !
 MANEZ - (Piarresi) Giza gaizoa, zuretzat ez dut deus egiten ahal izan.
 PIARRES - (Juan nahi du) Banoa beraz hiltzerat. Ez naiteke bizi Kattalin gabe.
 MANEZ - E he ! Eztiki ! Eztiki ! Debrientxoa ! Fite egiten ditutzu zuk harat-hunatak !
 PIARRES - (Itzulirik) Zer bilakatu behar dut ?
 MANEZ - Alo, alo, hemendut ba zure zera.
 PIARRES - (Berriz heldu) A ! Bizia berriz emaiten daitak !
 MANEZ - Ahatik zure baimena eman beharko dautazu, nik zure aitari egin gogo diotan joko batentzat, hark eni eginaren ordaintzeko.
 PIARRES - Nahi dukan guzia.
 MANEZ - Hitzemaiten dautazu, Kaiet lekuko ?
 PIARRES - Baietz, baietz.
 MANEZ - Ori, horra zure bortz-ehun mila liberak.
 PIARRES - Guazen, guazen laster diru horren eskaintzerat Españoler, hain maite dutan Kattalinen truk !

Oihala

HIRUGARREN AGER-ALDIA

I. GAXUXA - KATTALIN - MANEZ - JOSEP

- JOSEP - Ba, zuen gizongaiek elgarrekin nahi zaituzte eta heien manuz zaituztegu hunat bildu.
- GAXUXA - Manu horrek ez daut segur minik egiten. Atseginekin errezibitzen dut holako presuna goxoa eta pentsatzen bi gizonen artean bezala gure artean ere adixkidantza hoberena sorraraziko dugula !
- KATTALIN - Hitz bereko naiz. Ez dut nik sekulan adixkidantzari uko egin.
- MANEZ - Eta amodioa delarik mintzo ?
- KATTALIN - O, ez da gauza bera ! Amodioa lanjerosagoa da eta kasu hortan ez naiz ez hoin hardit !
- MANEZ - Ene nagusiaren alderat ez zira ahatik hoin kilika ? Piarresek zuretzat egin duenaren ondotik kurraia gehixago ukanen duzu ba segur haren amodioari baietz erraiteko ?
- KATTALIN - O, hop ! Polliki ! Polliki ! Ez zaitela fida. Beti alegera niz eta irriz ari, bainan irrien artetik ba dakit serioz egoiten behar delarik ! Ez dira gero kapitulu guziak berdin ! Untsa tronpatzen da zure nagusia, uste badu ene ordain sosaren emaita aski duela ene biltzeko ! Sosaz bertzerik ere behar du !
- MANEZ - Eta zer ?
- KATTALIN - Nahi balinbadu ene baia ukan beharko du ba gero lehenik bere fedearen gainerat, Elizako itzulia ere egin !
- MANEZ - Erran gabe doa, erran gabe ohorezki zaituela ba nahi Piarresek. Bertzenaz ere ez niz ez gero ni amodio makurretan sartzen direnetarik !
- KATTALIN - Bainan aitaren aldetik ez dea deus trabarik ?
- MANEZ - Utz gaitzazu : gauzak ezarriko ditugu behar diren haxean.
- GAXUXA - Biak kasu berean gira, beraz aise finkatuko da gure adixkidetasuna ! Irrisku beretan gira alabainan !
- KATTALIN - Zuk bederen ba dakizu noren ganik sortua ziren. Etxekoak hor dituzu zure zaintzeko eta obratu duzun ezkontzaren begiratzeko. Nik aldiz nehor ez dut ene alde. Bakar-bakarrik nago munduan xori arlakoa bezain ahul. Zer eginen dut beraz dirua baizik ikusten ez duen aita batekin ?
- GAXUXA - Ba, bainan zuk bederen ez duzu kontrariorik zure amodioan !
- KATTALIN - Ez dira ez gizonak hoin aldakorak ! Guk emaztek jakinen dugu ba saretarat bildu gizonaren atxikitzen. Bainan zer egin aita baten boterearen kontra ?
- GAXUXA - Zendako behar dute gure amodioa nahasi ? Zer gauza goxoa amodioa ! Zoin gogotik jasaiten ditugun bi bihotz elgarri lotzen dituzten esteka horiek !
- MANEZ - Trufan ari zirezte ! Amodio ezta, amodio tristia ! Gizonak maite du kanbiamendua ! Goiti-beheitiak behar dira bizian. Gauzak nekeago eta karra beroago, plazerra haundiago !
- KATTALIN - Gaixo Manez, konda zaguzu zoin abilki kendu diozuten dirua aitaso zahar horier. Biziki maite ditut ixtorioak eta ene irriez pagatuko dizut.
- MANEZ - Josepek nik baino hobeki kondatuko ditu denak. Nik ba dut bertze pentsaketarik mementoan, mendeka-bide baten ondotik bai naibila.
- JOSEP - Zertako sartu nahi duk berriz ere elorri artean ?
- MANEZ - Maite diat nik ausart izaitea !
- JOSEP - Sinetsi nahi banuk, xede hori bazterrerat utziko duk.
- MANEZ - Ba bainan nihauren burua nahiago baitiat sinetsi !
- JOSEP - Zer debru duk oraino kaskoan ?

- MANEZ - Zer debru duk hola arranguratzeko ?
JOSEP - Ikusten baitiat oraino batere behar gabe zonbait makila ukaldi bilduko ditukala !
MANEZ - Ene bizkarrak ditik senditzen eta ez hireak !
JOSEP - Ba, ba, hire bizkarraren jabe hiz, eta nahi dukan bezala baliatuko duk.
MANEZ - Lanjerak ez nik behinere gibelarazi. Hastio ditiat beti karkulan ari diren bihotz ahulak. Ondorioen beldurrez, deus ez egiten.
KATTALIN - Izanen dugu zure beharra !
MANEZ - Zoazte, ixtantean jinen nitzautzue. Ez dute alta erranen, damurik gabe bortxatu nautela gorde behar nintuen huts batzuen agertzerat !

II. LEON - MANEZ

- LEON - Eta ! Manez, nola doa ene semearen afera ?
MANEZ - Jauna, zure semea leku segurrean dago. Bainan zu zira orai munduko lanjerik haundienean, eta nahiago nuke zure etxean bazina.
LEON - Nolaz hori ?
MANEZ - Mintzo nitzautzan memento huntan berean, orotan zure ondotik dabilta.
LEON - Ene ondotik ?
MANEZ - Ba.
LEON - Eta nor ?
MANEZ - Kaietek esposatu duen neska horren anaia. Uste du zure alaba nahi baituzu Kaietekin ezkontarazi, hortako duela Joanesez ezkontza hori hautsarazi nahi. Bere ohorea handizki kolpatua dauka, eta biziaz gabetu nahi zaitu. Haren adixkide guziak beren makila ferratuak eskuan hor dabilta zure ondotik, zuri tripak atera beharrez. Soldado aintzindari sartu baita, haren soldadoak ere hemen gaindi dabilta etxe inguruetan. Zure etxea inguratua dute. Ez zira higitzen ahal ez eskuin ez ezker, heien aztaparretarat erori gabe.
LEON - Zer eginen diat beraz gaixo Manez !
MANEZ - Ez dakit jauna. Hauxe da ixtorioa ! Ikaretan nago zuretzat zango puntetarik ile mutturretaraino !... (itzultzen da eta ba doa so egiterat nehor ere badenetz).
(Urrats arrabotsa)
LEON - (Ikaretan) E ?
MANEZ - Ez, ez, ez, ez da nehor.
LEON - Ez duka deus ere hatzemaiten ahal ene ateka gaixto huntarik ateratzeko ?
JOANES - Banuke ba zerbait, bainan nihaurek ere irriskatzen baitut xintxikatua izatea !
LEON - Otoi, otoi, Manez, zerbitzari leial ager hadi. Ez mazakala utz otoi !
MANEZ - Nahikeria banuke ba. Hain naiz zuri atxikia nun zu lagundu gabe ez bainintaike bizi !
LEON - Saristatua izanen haiz segur. Soineko hau hirea izanen duk puxka bat higatzen dutanean.
MANEZ - Zaude. Zerbait ba dut hemen zure salbatzeko. Zaku huntan beharko duzu sartu, eta. (Urrats arrabotsa)
LEON - (Ustez norbait baden) Ai ! Ai !

MANEZ

- Ez, ez, ez, ez, ez da nehor. Zaku huntan behar duzu beraz sartu eta hor egon higitu gabe. Bizkarrean hartuko zaitut bertze zerbait balitz bezala, eta hola etsaien artetik iraganen gira zure etxeraino. Han aski duzu gero atea hestea polizari telefonatu eta.

LEON
MANEZ

- Ez duk gaizki hire sorginkeria !
- Munduko hoberena. Ikusiko duzu. (Berex) Pagatuko dautak ba hire zakurkeria !)

LEON
MANEZ

- He ?
- Zure etsaiak zakuan sartuko ditugula ! Zola-zolan jar zaite eta, oroz gainetik, ez higi, ez ager, zer nahi gertaturik ere.

LEON
MANEZ

- Zaude gustian. Jakinen dut ba geldirik egoiten...
- Kasu ! Gorde ! Bandil bat zure ondotik ! (Boza kanbiatuz) - Emen dugu Leon delakoa ? Otoi erradazu bada nun dagon gorderik ?
- (Bere bozarekin Leoni) Ez higi ! - (Kanbiatuz) Kausituko dut bai lurraren pean izanagatik ere ! - (Berearekin) Ez ager gero !
- (Kanbiatuz) Eh ! Zaku martxanta ! Jauna, mila liberako bat erraiten badaitazu nun dagon gorderik Leon delakoa ! - Leonen ondotik zabilta ? - Bai alafe ! Bilatzen dut bai. - Hilarazi behar baitut makila ukaldika ! - O, jauna, makila ukaldiak ez dira holako gizon bati emaiten ! - Zer Leon ergel hura ? Zoro, pika buztan hura ? - Jauna, Leon ez da ez ergela, ez zoroa, ez pika buztana. Eta plazer baduzu mintza zaite hartaz errespetu gehixagorekin. - Zer hi eni mintzo gisa hortan ?
- Leonen ohorea nahi dut zaindu ! - Zer hiz Leonen adixkide zombait ? - Ba jauna, hala naiz ! - A, baia ? (Makil ukaldiak zakuari) To, to haren parteak tirazkik ! - Ai ! ai ! ai ! ai ! Jauna ! ai ! ai ! Jauna ! aski ! aski ! Emeki ! ai ! ai !
- Hail eremazkok horiek ene partez. Adios. - Ai, urde kaskoina ! (Bizkarra higituz, ukaldiak ukan balitu bezala) Ai ! ai ! ai !

LEON
MANEZ

- (Zakutik burua ateraz) A Manez, azken hatsetan nuk !
- Zuk duzu ba arranguratzekoa ! Pusketan eman nu eta bizkarrak min bat izigarria egiten daut !

LEON
MANEZ

- Zer derasak ? Ene bizkarra dik jo.
- Zurea ? Enea ba.

LEON

- Baduka burutik ? Aski senditu ahal ditiat ukaldiak eta senditzen oraino !

MANEZ

- Ezetz gizona ! Izaitekotz ere makila punttarekin zaitu doi-doia hunkitu.

LEON
MANEZ

- Behar huen beraz gehixago baztertu ene begiratzeko...
- (Burua zakuan sarraraziz) Kasu. Huna beste bat halako aire bitzikin ! (Botza kanbiatuz) - Karanba ! Ni kurritzeko fite eta ni ez arrapatzeko Leon ! - Gorde ! gorde ! - Zu, gizon jauna, plazerra baduzu, zuk jakin nun Leon nik xerkatzen ?
- Ez jauna ! Ez dakit nun den Leon. - Erran zuk garbia : nun Leon. Nik gauza ttipia nahi. Nik bakarrik nahi eman hari dotzena bat makila ukaldi eta makila ferratua tripan sartu. - Egia, ez dakitala, jauna, nun den Leon. - Hum ! zerbait higitzen zakuan ? - Ez, ez, jauna ! - Zerbait ixtorio hor segur ! Ezetz ! ezetz ! jauna... - Ikus hunat, nik makila sar !
- O ez jauna ! Ez dut nahi !... - Ez nahi ? Hea hunat !
- Ez ! ez ! - Ezetz ? - Ez ! - Ni ikusi nahi ! - Eta nik ez erakutsi nahi ! - Ezetz ? - Ez ! - Ikusiko nik ! - Hea bada ? - Zer zuk hor ? - Arropa zahar batzu. - Hea bada !
- Ez. - Kasu nik makila zuri ! - Untsa futi nuk ! - A ! hik jostatu nahi, hik dantzatu nahi. (Jotzen du) Ai ! ai ! ai ! Ask ! aski ! - Ikus arte eta ikas hi mintzatzen eni !
- Ai urdia ! ai ! ai ! ai ! Gizatzarra !

LEON

- (Burua ateraz) Ai ai ! Xintxikatua nuk !

MANEZ - Ai ! ai ! ai ! Hila niz !
 LEON - Bainan zertako debru jotzen du ene bizkarraren gainean ? Ez dia zurea aski zabala ?
 MANEZ - (Burua gordearaziz) Kasu ! Kasu ! Huna orai dotzena erdi bat soldado ! (Botza kanbiatuz) Alo, alo hatzeman dezagun Leon zerri hura ! Hiri guzia behar diaguk miatu ! Ez dezagun Xoko bat ere hutsegin. Norat behar dugu juan ? Eskuin ? ezker ?
 - (Leoni) Gorde ! gorde ! - To, huna haren mutila ! Nun duk hire nagusia ? - O, jaunak, ez nezazuela jo ! - Alo, errak nun den eta fite gero ! - A jaunak, emeki ! emeki ! (Leonek burua ateratzen du eta Manezen maltzurkeria ikusten) Ezbalinbaduk hire nagusia hatzemaiten, makila ukaldika xehatzen hut ! - Nahiago dut hil ene nagusia saldu baino ! - Xintxi-katuko hut ! - Nahi baduzu ! - Porrokatuko ! - Berdin zaut ! - Zer dituk makila ukaldiak maite ? - Ez dut nik sekulan ene nagusia salduko ! - A baia ! Makila nahi duka jastatu ? To beraz ! ... O ! ! ! (jo nahi duelarik Leon zakutik ateratzen da eta Manez ihesari emaiten)
 LEON - Ai urdia ! Tripa ustela ez bertzea ! Trahidore tzarra ! Hola nuka hilarazten ?

III. KATTALIN - LEON

KATTALIN - (Leon ikusi gabe) To, aire puxka bat behar dut hartu !
 LEON - (Ustez Manez den) Ago ixtant bat ago, pekatuko duk ba !
 KATTALIN - (Leon ikusi gabe) A ! ha ! ha ! ha ! Zer ixtorio irriegangarria ! Zer joko pollita egion dion xahar horri !
 LEON - Ez da deus irriegitekorik ixtorio hortan.
 KATTALIN - Zer derasazu jauna ?
 LEON - Diot ez duzula nitaz trufatu behar.
 KATTALIN - Zutaz ?
 LEON - Ba, nitaz !
 KATTALIN - Nola ? Nor da zutaz trufagura ?
 LEON - Zendako irri egiten dautazu sudurrera ?
 KATTALIN - Ez duzu deus ikustekorik ene irrietan. Ene buruarekin ari naiz irriz, orai kondatu dautaten ixtorio batez. Zer joko pollita egion dion semeak aitari sosaren kentzeko.
 LEON - Semeak aitari sosaren kentzeko ?
 KATTALIN - Ba. Atakatzen banuzu kondatuko dautzut ba ixtorioa. Biziki maite dut dezkitan ixtorioen kondatzea.
 LEON - Konda zadazu otoi ixtorio hori.
 KATTALIN - Eginen dautzut ba. Ez dut deus ere irriskatzen. Berdin jakinen da. Hala beharrak Espainol kanter batzuekin gertarazi nau. Herri herri ibiltzen gira dupin eta kaxola antolatzen. Herri huntarat jin girelarik, mutiko gazte bat nitaz agradatu da.
 LEON - Ez naiz hortan harritzen. Nor ez da zutaz gustatuko ?
 KATTALIN - Uste zuen ba bertze mutiko gazte guziek bezala, aski zuela hitz baten erraitea ene biltzeko. Ba bainan ez bainiz ere arras ttonttoa !
 LEON - Begi horiek erneak dituzu bai.
 KATTALIN - Bere amodioa salatu zioten ene jenderi eta heiekilan sari batez antolatu zen.
 LEON - Tratulariak bezala !
 KATTALIN - Ez baitzuen ahatik berak sosik ! Aita bat badu aberatsa, bainan gatu zaharra bezain zikoitza, munduan izaiten ahal den gizonik itsusiena. Zaude. Ez niz bada haren izenaz oroituko ? Ai ! Lagunt nezazu. Ez duzia nehor ezagutzen herri huntan zikoitzaren fama duenik ?

- LEON - Ez !
- KATTALIN - Zaude !... Zaude !... Haren izenean bada on... on... meon !... ez... zaude... Leon naski ? Ba, Leon ! Hori da ene gizon itsusi hori ! Delako zikoitz famatu hura ! Beraz, ene jendek egun juan behar zuten herritik eta dirua eskas. Orduan du mutilak lagundu aitari diruaren kentzen, Mutilaren izena ez dut ez ahantzia. Manez du izena. Gaitzeko gizona da. Laudorio guziak hartze ditu.
- LEON - (Bere baitan) Ai urdia ez bertzea !
- KATTALIN - Huna nola enganatu duen. A ! ha ! ha ! ha ! Oroitzean ez nagoke irri egin gabe egon ! A ! ha ! ha ! ha !
- LEON - (Berex) Irriak sartuko zaizkin ba !
- KATTALIN - Izan da zikoitz zakur horren harrapatzen.
- LEON - Milesker no !
- KATTALIN - (Irri egiten du) Sinetsarazi dio haren semea karabineroek preso hartu dutela espiongoan hatzemanik. (Irri egiten du). Eta Iruñarat eremanen dutela aitak ez baditu bi oren barne bortz-ehun mila libera emaiten (Irri egiten du) Aitak semea maite du eta dirua maite. Ez daki zer egin. Justizia nahi du igorri Espainiarat. Mutila nahi diote sakatu semearen orde, Entzun behar zinuen gaixoa oihuka eta nigarrez. "Bainan zertarat juanak zinezten Espainiarat !" (Irri egiten du). Bainan, ez du iduri ere ixtorioak jostarazten zaituela ? Zer diozu gero hortaz ?
- LEON - Diot mutikoa mandren bat dela, zirtzil bat, eta aitak gazti-gatuko duela egin dion zakurkeriaz. Diot ere Españolika nexka txar ergel bat dela eta diot gizon horrek erakatsi diola familiako haurren galarazten. Diot mutila bandil bat dela eta Leonek gaur berean hiltzerat kondenaraziko duela.

IV. JOSEP - KATTALIN

- JOSEP - Norat eskapatu zira ? Zer dio Piarresen aitak ?
- KATTALIN - Hura baitzen ! Orai berean gauza horri nindagon. Eta nik berari kondatu bere ixtorioa !
- JOSEP - Zer ? Bere ixtorioa ?
- KATTALIN - Ba, ixtorio hortaz arrunt hartua nintzan eta norbaiti kondatu gabe ezin egon. Bainan zer da gero ? Hanbat gaxto horrentzat ! Ez ditu gauza horrek gure intresak ez haundituko ez ttipituko !
- JOSEP - Horra zer den mihi luze izaitea !
- KATTALIN - Zer da gero ? Berri horiek berdin jakinen zituen bertze baten ganik !

V. JOANES - JOSEP

- JOANES - Eup ! Josep !
- JOSEP - (Kattalini) Sar zaite etxean, huna ene nagusia ene galdez.
- JOANES - Jakin diat pollitik. Elgar aditu duzue beraz, maltzurra ; elgar aditu duzue Manezek, zuk eta ene semeak, ene zakuan sartzeko, eta uste duzue gauzak hola iragan direla?
- JOSEP - Jauna, Manez zakurkerian arizan bazaitzu, ni garbi naiz hor-tarik.
- JOANES - Ikusiko dugu gauza hori, pilda tzarra, ikusiko dugu eta ez dut uste beti nitaz hola jostatuko zireztela.

VI. LEON - JOANES - JOSEP

- LEON - A gaixo Joanes, bazinaki zer gertatzen zautan !
 JOANES - Eta eni, zer ez zaut gertatzen ?
 LEON - Manez debru horrek bere zakurkeriekin bortz-ehun mila libera kendu dauzkit.
 JOANES - Eta eni Manez debru horrek berak berrehun mila libera !
 LEON - Eta ez nu bakarrik ebatsi ! Ahalge bainaiz aipatzeko ere zer egin dautan ! Bainan ez du fini !...
 JOANES - Beharko daut ba ordaindu egin dautan jukutria !
 LEON - Alta eneganik ere mendekio ederra bilduko du ba !
 JOSEP - Agian Jainkoak begiratuko nu ene partearen ukaitetik !
 LEON - Eta ez da hortan fini Joanes ! Zorigaitz bat beti beste baten mezulari ! Jakin dut bertzalde esperantza nuen alaba aspaldian juana dela zen lekutik eta oraiko ustez itsasoan ito dela.
 JOANES - Bainan zendako ez zen zurekin bizi ?
 LEON - Ene arrazoinak ba nituen hortako. Familiako intresen gatik gorde behar izan dut bigarren ezkontza hori. Bainan nor dut hemen ikusten ?

VII. KOXEPA - JOANES - LEON - JOSEP

- LEON - To ! Hor zirea amañoa ?
 KOXEPA - (Belaunikaturik) A Keronimo ! zoin...
 LEON - Leon dut izena. Ez dut gehiago arrazoinik han nuen izen faltsuaren atxikitzeke.
 KOXEPA - Bazinaki izen kanbiatze horrek ekarri dauzkigun trabak zure hatzemaiteko !
 LEON - Nun dira ene emaztea eta haren alaba ?
 KOXEPA - Zure alaba ez da hemendik urrun. Bakarrik barkatu behar dautazu, zu falta izanez ezkontarazi behar izan baitut ezinbertzean.
 LEON - Ene alaba ezkondua !
 KOXEPA - Ba jauna.
 LEON - Eta norekin ?
 KOXEPA - Kaiet deitu mutiko gazte eder batekin, Joanes delako gizon baten semearekin !
 LEON - Jainko ona !
 JOANES - Zer gertakaria !
 LEON - Bereala lagunt gaitzazu den tokirat.
 KOXEPA - Aski duzue etxe huntan sartzea.
 LEON - Pasa zaite aintzinean. Segi nezazu, segi, Joanes.
 JOSEP - Hauxe da gertakari harrigarria !

VIII. MANEZ - JOSEP

- MANEZ - Alo Josep ! Zer ari dituk gure jendeak !
 JOSEP - Bi abisu baitiat hiretzat. Lehena Kaieten afera xuxendu dela. Gure Gaxuxa Leonen alaba da. Aiten zuhurtziakamentstua, suertiak obratu dik. Bigarren abisua, kontrizionezko akta on bat egiten ahal dukala. Bahaki zer mehatxuak egin dituzten hiretako, bereziki Leonek !

- MANEZ - Deus ez duk hori. Mehatxuek ez zautatek sekulan minik egin. Gure buruen gainetik gorasko iragaiten diren lano batzu dira mehatxuak !
- JOSEP - Guardia emak ! Semeak beren aitekin akomoatzen ahal dituk, hi petzero geldituz bakar bakarrik !
- MANEZ - Utz nezak, utz nezak ! Hatzemanen diat ba heien asarrearen goxagailua !
- JOSEP - Hail hemendik, heldu dituk !

IX. LEON - JOANES - JOSEP - KOXEPA - GAXUXA - KATTALIN

- LEON - Alo, ene alaba, zauri ene etxerat. Zer bozkarioa ukanen nuen zure ama ere zurekin batean hemen izan balitz !...
- JOANES - Hain xuxen huna Kaiet.

X. KAIET - JOANES - LEON - KATTALIN
KOXEPA - GAXUXA - JOSEP

- JOANES - Zato ene seme maitea, zato gurekin bozkariatzerat zure ezkontza hoin untsa itzulikaturik. Jainkoak...
- KAIET - (Gaxuxa ez baitu ikusten) Ez, aita debaldetan ari zira.
- JOANES - Ba, bakarrik ez dakizu...
- KAIET - Ba dazkit jakin behar ditudan guziak.
- JOANES - Erran nahi dautzut Leonen alaba...
- KAIET - Leonen alaba ez da sekulan deus izanen enetzat.
- JOANES - Hura da...
- KAIET - Ez jauna, barkatu bainan xede guziak hartuak ditut.
- JOSEP - Entzunazu...
- KAIET - Ez, ago ixilik, ez diat deus entzun nahi.
- JOANES - Hire emaztea...
- KAIET - Ezetz eta ezetz, aita, nahiago dut hil ene Gaxuxa gaixoa utzi baino (Ba doa hari buruz) Ba, nahi duzuen eginen duzue, bainan huna nik fede eman diotan presuna ; bizi guzia maitatuko dut eta ez dut bertze emazterik nahi...
- JOANES - Bainan hori dautzugu emaiten. Zer xori burua ziren, beti zuharen baizik ez ikusten !
- GAXUXA - Ba, Kaiet, huna ene aita berriz hatzeman dut eta orai grina guzietarik kanpo gira.
- LEON - Guazen gure etxerat hemen baino hobeki izanen gira mintzatzeko.
- GAXUXA - A ! Ene aita, fagore bat galdegiten dautzut, ez nezazula berex ene lagunaren ganik. Ba du segur mereximendu, eta ezagutuz bezala ikusiko duzu zer estimutan ukanen duzun !
- LEON - Nahi zinuke etxean atxik dezadan zure anaiak maite duen eta nitaz hoinbeste trufatu den presuna ?
- KATTALIN - Jauna, barka, **otoi**. Ez nintzan ez horrela mintzatzeko, jakin banu zu zinela eta ez zinitudan ezagutzen omenez baizik !
- LEON - Zer omenez baizik ?
- GAXUXA - Aita, ene anaiak horren alderat duen amodioak ez du deus itsusirik eta ni horren bertutearen berme jartzen niz !
- LEON - To, pollita dugu hori ! Zer nahi zinuke ene semea horrekin ezkontaraz dezadan ? Nehork ezagutzen ez duen neska bat, neska galdu bat !

XI. PIARRES - KAIET - GAXUXA - KATTALIN
JOANES - LEON - JOSEP - KOXEPA

- PIARRES - Aita, ez samur nehork ezagutzen ez duen nexkato bat hartzen balinbadut. Horren jabe zirenek erran dautate herri huntako familia ohoragarri batetako alaba dela. Lau urte zituelarik ebatsi omen zuten. Brazeleta hau eman dautate haren etxekeen hatzemaiteko !
- JOANES - Brazeleta hori ezagutzen dut, lau urte zituelarik galdu nuen alabarena da hori !
- LEON - Zure alabarena ?
- JOANES - Ba, ba, hura da, eta dena hura da gero ! Ageri du segur, dena hura da.
- GAXUXA - Jainkoa ! Hauxe dira gertakariak !

XII. PEIO - PIARRES - KAIET - JOANES - LEON
KATTALIN - GAXUXA - JOSEP - KOXEPA

- PEIO - A ! Jaunak, izigarrikeria bat gertatu da !
- LEON - Eta zer ?
- PEIO - Gaixo Manez...
- LEON - Bandil bat da eta urkarazi behar dut.
- PEIO - Zorigaitzez, jauna, ez duzu lan haundirik ukanen hortako. Etxe baten aintzinean iragaitean, hargin mailu bat erori zaio buruaren gainerat eta dohakabeari hezurak porroskatu diozka buru muinak agerian ezarriz. Hiltzen ari da eta otoiztu nau hunat ekarraraz nezan hil baino lehen mintzatu nahi baigitu.
- JOANES - Nun da ?
- PEIO - Huna hemen.

XIII. MANEZ - PEIO eta bertze guziak

- MANEZ - (Bi gizonek ekartzen, burua loturik)
Ai ! ai ! Jaunak, ikusten nuzue... Ai estatu pollitean ikusten nuzue. Ai ! Ez dut nahi hil ofentsatu ditudan presuna guzieren barkamendu galdu gabe. Ai ! Ba jaunak, azken hatsa eman baino lehen, otoizten zaituztet bihotzaren erditik, nik eginak barkakitzue eta zuek bereziki Joanes eta Leon. Ai !
- JOANES - Nik ene aldetik barkatzen dautzut ; zoazi bakean, hil zaite...
- MANEZ - (Leoni) Zu zaitut bereziki jauna, gehienik laidostatu, eman daukitzutan makila ukaldi...
- LEON - Aski erranik, Manez, barkatzen daiat nik ere.
- MANEZ - Ausartzia gaitza hartu nuen, zuri holako makila ukaldiak...
- LEON - Jainkoaz zaude ixilik.
- MANEZ - Makila ukaldi debru horiek...
- LEON - Egon gogo duka ixilik ! Denak ahanzten ditiat.
- MANEZ - O ! zer onezia ! Bainan jauna, bihotz onez barkatzen daukazia gero makila ukaldi...
- LEON - Baietz ! baietz ! Ez dezagun deus aipa gehiago ; denak barkatzen daukiat : horra egina.
- MANEZ - A jauna, karga ederra kentzen daut ele horrek bihotzaren gainetik !

LEON - Bai ; bainan hiltzekotan dautzut gero barkatzen !
MANEZ - Nola jauna ?
LEON - Ene hitzaren jabe gelditzen nuk bizirik ateratzen bahiz.
MANEZ - Ai ! ai ! Berriz ere ahuldurak heldu !
JOANES - Leon, gure bozkarioaren ohoretan, barkatu behar diozu kondi-
zionerik gabe.
LEON - Bon ! bon ! Bego hortan !
JOANES - Guazen elgarrekin afaiterat gure atseginaz hobeki gozatzeko.
MANEZ - Eta ni, aski nuzue mahain muttur batetarat eremaitea, heriotza
jin arte.

- Oihala -